


HAURREN SAGARDO EGUNA OSPATUKO DA LEHEN ALDIZ

Herriko haur talde bat Sagardo Egunerako dekorazioa prestatzeko bildu zela jakin genuen, eta horrek galdera batera eraman gintuen: zer egingo dute haurrek Sagardo Egunean? Susana Martinek eman dizkigu azalpen denak.



DEKORAZIOAZ GAZTETXOAK ARDURATU DIRA

Gaztetxoenek ere Sagardo Eguna ospatuko dute aurten. Artzabalgo parkea izango da festa honen bilgunea. Duela aste batzuk dira haur talde txo bat dekorazioa prestatzen hasi zela. Hori gutxi balitz, hilaren 20an, Sagardo Egunaren bezperan hain zuzen, herri-mural batean hartuko dute parte.

NOAUA! Nolakoa izango da Sagardo Egun Txikia?

Susana Martin. Artzabal inguruko zonalde guztian egingo da. Gune hau umeentzat eta familientzat utziko da, kaxkoan iskanbila handia izaten baita. Horregatik pentsatu dugu, hilaren 21ean Sagardo Eguna denez, bezperan herri-murala

egitea umeentzat. Frontoia papereztatuko dugu eta denek sagarrak marraztu beharko dituzte. Polita geratuko da, adin ezberdinetako umeen marrazkiak izango dira, kolore ezberdinak erabiliko dituzte... Eta dena sagarrez beteko da. Egunean zehar sagarrarekin zerikusia duten jokoak egongo dira, ipuin kontalariak...

N. Aurrez landu duzuen, orduan, dekorazioa izango da, ezta?

S. M. Bai, orain sagar handiak egiten ari gara belardietan jartzeko, eta baita globoak hosto batekin zuhaitzetan zintzilikatzeko, sagasti handi bat balitz bezala. Zuhaitzetarako pertsonaiak ere egiten ari gara, trikitilariak, bertsolariak, sagardo botatzaileak... Azken finean, umeek ikus

Adi haurrak! Aurten Sagardo Eguna ez baita helduentzat bakarrik izango.

Zatozte guztiak hilaren 20an eta 21ean Artzabal ingurura.

dezaten nolako giroa egoten den.

N. Zein da ekitaldi honen helburua?

S. M. Muralarena umeak ere Sagardo Egunean inplikatzeko egingo da, handitzen direnean Sagardo Egunaren tradizioarekin jarrai dezaten. Gerora, Sagardo Eguna prestatuko duten antolatzailerik gabe ez geratzeko. Horrela jada prestakuntzan parte hartzen hasten dira.

Dekorazioaren kontu honi dagokionez, polita jartzeko egiten ari gara, kanpoko jendeak ikusteko. Bestela, plazan beti postuak egoten dira, eta hau pixka bat hotza gelditzen da. Festak hemen behean ere jarraipen pixka bat izan dezan egingo da, umeak erakartzen dituzten gauzak eta koloreak erabiliz.